


# FORMAKUNTZA DUALA HOBETO EZAGUTZEN

---

Gazteen ikuspuntua Formakuntza Dualaren inguruan



## FORMAKUNTZA DUALA HOBETO EZAGUTZEN

Idazketa eta edizioa:

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)



Euskadiko  
Gazteriaren  
Kontseilua

Consejo de  
la Juventud  
de Euskadi

Diseinua eta maketazioa:

ERREKA MULTIMEDIA S. COOP.

Itzulpena:

Artez euskara zerbitzua

Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



Diputación Foral  
de Gipuzkoa  
Departamento de Cultura,  
Turismo, Juventud y Deporte

# FORMAKUNTZA DUALA HOBETO EZAGUTZEN

---

Gazteen ikuspuntua Formakuntza Dualaren inguruan

## AURKIBIDEA

|                                                                                  |    |
|----------------------------------------------------------------------------------|----|
| SARRERA                                                                          | 5  |
| 1. ZER DA FORMAKUNTZA DUALA?                                                     | 6  |
| 1.1 Adina                                                                        | 6  |
| 1.2 Zer ikasi daiteke Formakuntza Dualean?                                       | 7  |
| 1.3 Bizilekua                                                                    | 7  |
| 1.4 Garraiobidea                                                                 | 8  |
| 2. FORMAKUNTZA DUALEAN SAKONTZEKO                                                | 9  |
| 2.1 Formakuntza Dualaren modalitateak                                            | 9  |
| 2.2 Soldata gordina                                                              | 9  |
| 2.3 Ordu kopurua                                                                 | 10 |
| 2.4 Ikasteko hizkuntza                                                           | 10 |
| 2.5 Lan arriskuen prebentzioko formakuntza eta babes pertsonalerako ekipamenduak | 11 |
| 3. ETA ZER USTE DUTE FORMAKUNTZA DUALEKO IKASLEEK HONEN INGURUAN?                | 13 |
| 3.1. Zergatik aukeratu Formakuntza Duala?                                        | 13 |
| 3.2. Espektatibak eta errealitatea bat egiten dute?                              | 13 |
| 4. ONDORIOAK                                                                     | 16 |
| 5. ITXIERA                                                                       | 17 |
| 6. BIBLIOGRAFIA                                                                  | 18 |

## SARRERA

2018. urtean Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) Formakuntza Duala, erreferente bihurtu den formazio-eredua, aztertzen hasi zen. Gasteizen eta Donostian egindako topaketetatik [#FormakuntzaDualaEzagutzen](#) txostena kaleratu zen. Hori abiapuntu izanda, 2019ko helburua gazteen iritziak, ikuspuntuak, beharrak eta proposamenak biltzea izan da. Horretarako, Formakuntza Dualak gazteen bizitza-proiektuan duen eragina aztertuko da eta, ondoren, EAEko administrazioei helaraziko zaizkie ondorioak.

Gazteen iritzi, beharrak, ideiak eta proposamenak kontuan hartzeko, zein Formakuntza Dualaren errealitatea hobeto ezagutzeko, gazteek, ikasle zein ikasle-ohiek, urrian zehar, EGK-k sortutako inkesta bete duzue. Honetaz gain, Gipuzkoako hainbat zentroetako ikasleekin gogoeta-saioak burutu dira.



## 1. ZER DA FORMAKUNTZA DUALA?

Formakuntza Duala prestakuntza-aldiak heziketa-zentroan eta enpresan edo erakunde batean txandakatzean oinarritzen den hezkuntza jardura da. Hasieran Lanbide Heziketako ziklo batzuetan ezarri bazen ere, ziklo gehiagotara zabaltzen eta unibertsitate mailan aplikatzen hasi da azken aldian. Lanbide Heziketa Dualari dagokionez, [Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako web orrialde ofizialean](#) adierazten den bezala, gaur egun 2.300 ikasle baino gehiagok parte hartzen du ikasketa modalitate honetan.

Enplegu mundua etengabe aldatzen ari da eta gizarteak horretara moldatu beharra dauka, baita hezkuntza-sistemak ere. Hori dela-eta, lan munduan dauden beharrak antzemanda, Formakuntza Dualak gazteen lan-merkaturatzea erraztea bilatzen du kalitatezko enpleguak sustatuz eta langileen gaitasun eta kualifikazioari lehentasuna emanez (Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketa saila, 2019).


Baina teoria errealitatearekin alderatuz; nola eramaten dute aurrera Formakuntza Duala haien egunerokotasunean honetan aritzen diren gazteek? Zein behar ikusten dituzte? Genero-berdintasuna bermatuta dago formakuntza eredu honetan?

Ondoren galdera hauen inguruko ekarpenak azalduko dira gazteen ikuspuntu ezberdinak kontuan hartuz, horretarako inkestak eta eztabaida taldeak burutu direlarik.

### 1.1 Adina

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) gazte adin-tartea 18-30 urte bitartekoa dela ulertzen du. Lan egiteko legezko adina 16 urte dira, beraz, adin honetatik aurrera burutu dezakete Formakuntza Duala, gazteen artean pil-pilean dagoen gaia izanda. Baina ez dago inolako adin mugarik ezarrita adin maximoari dagokionez, beraz 30 urtetik gorakoak hau burutu dezakete ere.

*1. Grafikoa: Formakuntza Dualeko ikasleak adinaren arabera.*




Bi modalitate ezberdin existitzen dira Formakuntza Duala burutzeko: lan kontratuarekin edo bekarekin. Bi modalitate hauen desberdintasunen artean adin-tartea dago. Beka jasotzeko ez dago inolako adin mugarik eta hau jasotzeko bestelako baldintzak betez gero edozein adinekin burutu daiteke. Lan kontratuaren kasuan, aldiz, gehienezko adina dago ezarrita. Adin muga honek gora edo behera egiten du urteroko langabezia-tasaren arabera. Desenplegu tasa %15a baino txikiagoa denean, adina 25 urtetan ezartzen da, eta handiagoa denean 30 urtean ezartzen da muga. 2019an 25 urtetan ezarri da, langabezia-tasa %9,2koa delako (Eustat, 2019 - Hirugarren hilekoa). Bi modalitate hauek aurrerago azalduko dira (2.2. puntuan).

Lan kontratuen adin baldintza hori dela-eta, Formakuntza Dualean aritzen diren gehienak 25 urtetik beherako gazteak dira.

### 1.2 Zer ikasi daiteke Formakuntza Dualean?

Gizartean, oraindik ere feminizatutako edo maskulinizatutako lanbideak dauden heinean, berauen prestakuntzarako balio duten ikasketek eredu horri erantzuten diete. Emakumezkoak zerbitzuen arloa okupatzen jarraitzen dute gehienbat, osasun edo administrazio arloak batik bat. Gizonezkoek, aldiz, ikasketa eta lanbide teknikoagoak aukeratzen dituzte, hala nola, industria, fabrikazioa zein informatika arloak. Ezberdintasun hau gehienbat unibertsitatean gertatzen bada ere, Lanbide Heziketan ere gertatzen da.

**2.Grafikoa: EAEko unibertsitateetan ikasketak amaitu zituzten ikasleak. Ikastetxearen eta ikasketa-adarraren titulartasunaren arabera, ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera. 2017/18.**



EAEk eskumena du Formakuntza Dualaren alorrean, beraz, ikasketa hauek arautzeko. Nahiz eta arlo desberdinetan zabaltzen ari den, kontuan izan behar dira pertzepziozkoak diren ikasketak, hauetan ezin delako Formakuntza Duala ezarri, lan kontratu bat lortu ahal izateko aurrez titulua eduki behar delako. Honi aurre egiteko eta Formakuntza Duala ikasketa esparru edo familia guztietara zabaltzeko, lan kontratuarekin egin ordez, bekarekin egitearen ideia landu da, modu honetan aukera gehiago emango baitzaie ikasketa ezberdinak burutzen dituzten gazteei.

Pertzepziozkoak diren ikasketa hauek gehienbat osasun arlokoak izaten dira, erizaintzaren laguntza osagarriak, adibidez, baita sozialak direnak ere (mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta, gizarte integrazioa...). Hauek, aldi beren, ikasketa feminizatuak dira, beraz, zeharkako moduan emakumezkoak Formakuntza Dualean bigarren maila batean geratzen dira, hau arlo maskulinizatueta zentratzen delarik.

Formakuntza Dualean aurrera eramaten diren lan arloak industria arlokoak dira gehienbat. Honek Formakuntza Dualean gizonezko gehiago egotea ekartzen du (%70) ziklo hauek lan arlo maskulinizatuak direlako. Ziklo eta lan arloen maskulinizazio horrek beste hainbat desabantaila ekartzen ditu emakume eta gizonezkoen artean. Ikasketa zentroetan generoen arteko berdintasuna bermatzen bada ere, hainbat enpresetan pausuak emateko daudela adierazi zuten eztabaida-taldeetan: *“Beti ez daude emakumeentzako aldagela propioak”*.


Beste alde batetik, kontuan izan behar da ere Formakuntza Dualean aritzen diren ikasle gehienak kontratatutak izaten direla enpresan. Honek gizonezkoen lan aukerak handitzen ditu, emakumezkoenak, aldiz, ez.

### 1.3 Bizilekua

Formakuntza Duala hobeto ezagutzeko burutu diren ekintzak, inkestak zein eztabaida-taldeak Gipuzkoako lurraldean zentratu dira batik bat, nahiz eta inkesten erantzunak EAEan zehar jaso diren.


Gaur egungo biztanleria gehiena hiriburuetan, hauen metropolieta eta biztanle handiko herrietan bizi da. Gazteak herri txikietatik hirietara mugitzen dira batez ere. Erantzunen arabera ikus daiteke nola Formakuntza Dualean aritzen direnen enpresen edota erakunde gehiengoak hiriburuetan edo biztanleria handiko herrietan dauden, baita ikasteko zentro gehienak ere. Gazteak haien bizitokia enplegua dagoen lekura aldatzera behartuta ikusten dira, kontziliazioa hobeto eramate aldera. Inkestari erantzundako gazteen %75a 10.000 biztanle baino gehiagoko hirietan bizi da, eta %23a hiriburuetan. Lana eta zerbitzu gehienak hiriburu eta herri handietan egotearen zentralizazio horrek herri txikiak gazteria gabe geratzea eragiten du, gazteriarentzako eta gizarterako bestelako ondorioak ekarritik.

**3. Grafikoa: Formakuntza Dualeko ikasleen bizilekua eta enpresaren kokalekua, hirien tamaina kontuan hartuta**





#### 4. Grafikoa: Formakuntza Dualeko ikasleek praktika gunera duten distantzia



Formakuntza Dualean aritzen diren gazte gehienek praktikak gauzatzen dituzten enpresa edo erakundea hiri berean edo 10 kilometro baino gutxiagora dutela adierazten dute. Ikastetxeko arduradunek enpresak edo erakundeak hurbil bilatzen saiatzen dira, nahiz eta ikasle batzuek 30 kilometro baino gehiagoko distantzia daukaten. Ikasketen eta bizitza pertsonalaren kontziliazioa aurrera eraman ahal izateko bizileku eta praktika gunea ahalik eta hurbilen izatea komeni da, nahiz eta distantzia motza izatea ez den horren erraza izaten.

Distantzia motza izatea ez da horren erraza izaten herrietan bizi diren gazteen artean. Gero eta enpresa gehiagok formakuntza-eredu honetan parte hartzen duten arren, ikasleen %23ak 20km baino gehiagotara dauka praktika lekua. Honek autoa edota horraino joateko baliabidea izatea eskatzen du, egoera honek baliabide ekonomiko zein material gutxiagoko gazteen aukerak murrizten dituelarik.

#### 1.4 Garraiobidea


Formakuntza Dualeko gazteek ondo antolatu behar dute haien egunerokotasuna, ikasketa zentrora eta praktika gunera joan behar direlako egunero edo behintzat asteko egun batzuetan, kasuaren arabera.

Leku batetik bestera mugitzeko, nahiz eta egunero garraiobide berdina erabiltzen ez duten, kasuen erdia baino gehiagotan autoa erabiltzen dute (%62). Praktika-gunera dagoen lekua kontuan hartuta askotan baliabide gehiagorik ez egoteagatik. “Auto bat erosi behar izan dut praktiketara joan ahal izateko, gurasoen ordutegiekin koordinatzeko zaila izaten zelako” aipatu zuen gazte batek.

Gehien erabiltzen den bigarren garraioa publikoa da, autobusa normalean (%31) erabiltzen delarik. Administrazio ezberdinak garraio publikoa edota bizikleten erabilera sustatzeko dituzten politika eta neurriek bide luzea dute oraindik egiteko. %21a baino ez da bizikletaz edo oinez joaten nahiz eta %53ak praktika lekua 10km baino gutxiagora duen.

Kontuan hartzekoa da baita ere ikasle hauek denboraren kudeaketa on bat behar dutela guztiaren kontziliazioa egin ahal izateko. Horregatik garraiobide erraza, eroso eta azkarra beharrezkoa dute. Honetan, ordutegiei dagokionez batik bat, autoa da garraiobiderik erosoena, nahiz eta ingurumenerako hoberena ez izan.

#### 5. Grafikoa: Formakuntza Dualeko ikasleak praktika-gunera joateko erabiltako garraiobidea





## 2. FORMAKUNTZA DUALEAN SAKONTZEKO


### 2.1 Formakuntza Dualaren modalitateak

Lehen azaldu bezala, Formakuntza Duala burutzeko aukera edo modalitate ezberdinak daude: bekarekin edo lan kontratuarekin. Bi kasuek **83/2015, ikas ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala EAEn ezartzen duen dekretuaren** babesa daukate.

Baina, zeintzuk dira bi modalitate hauen arteko ezberdintasunak? Ikasleak ezagutzen dituzte ezberdintasun hauek?

Burutu diren topaketetan bekaren eta lan kontratuen gaineko ezberdintasunak ez direla argi geratzen azaldu du ikasleen ehuneko handi batek. Honen arrazoia, hasieratik orokorrean Formakuntza Dualaren inguruan eskaini dieten informazioa eskasa izan delako ematen da. Baita ere modalitateari dagokionez, edota bestelako nondik norakoen ingurua.

#### 6. Grafikoa: Formakuntza Duala burutzeko modalitatea



Galdetegia erantzun duten ikasleen gehiengoak (%66) lan kontratuarekin burutzen du, hauek prestakuntzarako edota ikaskuntzarako kontratuak direlarik. Lehen azaldu den bezala, lan kontratuarekin burutu ahal izateko baldintza bat adina da: gehienez 30 urte langabezia-tasa %15a baino altuagoa denean, eta 25 baldin eta langabezia-tasa %15 baino baxuagoa den urtean. 2019ko kasua izan da hau, langabezia-tasa %9,2koa delako. (Eustat, 2019 – hirugarren hiruhilekoa).

Baremazio modura erabiltzen den langabezia-tasa orokorra da, hau da, ez da gazteen datua kontuan hartzen zehazki. Eustaten datuen arabera, 16-24 urteen artekoen langabezia-tasa, gazteen parte bati dagokiona, altuena da, 2019ko hirugarren hiruhilekoan (dauden azkenengo datuak) %20,1koa izanik hain zuzen. Datu hauek gazteen prekaritatea adierazten dute. Nahiz eta Formakuntza Duala honi aurka egiteko aukera ona izan, formakuntza lan kontratuarekin burutu ahal izateko Lanbiden apuntatuta eta beraz langabezia egon behar dira gazteak. Lan kontratuarekin burutzeko ezarritako baldintzak ez dira ongi egokitzen gazteriaren errealitatera.

Bestelako %34a bekarekin aritzen da, honetan adin mugarik ez dagoela. Kasu honetan gizarte segurantzaren kotizatzen da lan kontratuarekin bezala, nahiz eta modalitate honetan ez den langabeziako prestakuntza ekonomikoa jasotzeko aukera ematen. Lan kontratuarekin, aldiz, bai.


### 2.2 Soldata gordina

Praktikak lan kontratuarekin zein bekarekin burutuz gero gazteak jasotzen duten ordainsariak antzerakoak dira. Bekaren bidez Lanbidearteko batez besteko soldatarekin neurtzen da ordainsaria. Lan kontratuarekin, aldiz, enpresa bakoitzak ikaslea arituko den postuaren hitzarmena kontuan hartuz kalkulatu du. Hala ere, Formakuntza Dualeko ikasleek lanaldi baten %75a egin dezakete gehienez, beraz, soldata lanean ematen dituzten orduen arabera egokitzen da.

Lan munduan dagoen generoen arteko desberdintasuna oso nabaria da, hau argi ikusten da soldata arrakalan batik bat. Gazteen Euskal Behatokiak, **Gazteak eta enplegua Euskadin 2017an** ateratako txosteneko adierazten den bezala, lanpostu berdinean egonda, emakumezkoek gizonazkoen baino %11 gutxiago kobratzen dute hiler. Soldataren ezberdintasun honek, langabezia-tasarekin ematen den bezala (emakumezkoen, %9,9a eta gizonazkoen %8,6a) generoen arteko berdintasun eza eta prekaritatea sustatzen du.

Formakuntza Dualaren kasuan, nahiz eta ezberdintasuna txikiagoa izan, badago soldata arrakala emakumezkoen eta gizonazkoen artean. Bi generoak erreparatuz gero, inkesta erantzun duten ikasleen gehiengoak 500€ eta 750€ artean kobratzen du. Formakuntza Duala egiten dutenen emakumezkoen %13ak 0-500 euro arteko soldata du; gizonazkoen kasuan, kopuru hori %8,5ak baino jasotzen ez duelarik. 750 eurotik gorako soldata erreparatzen badira, egoera aurkakoa da, emakumezkoen %26,5ak jasotzen du eta aldiz gizonazkoen %29,3ak. Hau da, proportzioan gehiago dira soldata baxuak jasotzen emakumeak eta soldata altuagoak jasotzen dituzten gizonak.

### 7. Grafikoa: Formakuntza Dualeko praktiken soldata gordina generoaren arabera




### 2.3 Ordu kopurua

Formakuntza Dualeko ikasleek ezin dute lanaldi oso baten %75a baino gehiago burutu, baina, zenbat ordu sartzen dituzte ikasle hauek guztira praktikan eta zenbat ikasketa zentroan? Lanbide Heziketa modalitate normalizatuan burutuz gero, kasu bereziak alde batera utzita, ikasleek 30 ordu pasatzen dituzte astean ikasketa zentroan, gainerako orduak libre dituztelarik.

Formakuntza Dualeko kasuetan ezberdintasuna nabarmenagoa da modalitate normalizatuan baino. Formakuntza Dualean ikasketa zentroan astean gehienez 10 ordu, 21-25 ordu artean eta 25-30 ordu artean ematen dituzten ikasle kopuruak nahiko antzekoak dira. Ordu kopuruaren ezberdintasun nabari honek zentro bakoitzak eta ikasketa bakoitzean egiten diren orduen baliokidetzearekin zerikusia du, baita ikasle bakoitzaren egoera propioarekin ere.

Honetaz gain, dualaren modalitatearen berezitasuna ikasketa zentroan ikasteaz aparte, ikasleak enpresa edo erakunde batera lanera joaten direla da. Beraz, ikasketa zentroan ematen dituzten orduak, lanean ematen dituzten horiek gehitu behar zaizkie. Lanean ikasleen gehiengoak astean 20 ordu inguru sartzen ditu, egunean 4 ordu, ohiko lanaldi osoaren erdia izango litzatekeena.

### 8. Grafikoa: Orduak ikastetxean eta praktika zentroan



Nahiz eta gehiengoan kasuak horrelakoak izan, ikasketaren arabera kasu ezberdinak ere badaude. Formakuntza Dualeko praktiken ordutegi hauek, gehienbat, industria arloarekin bat egiten badute ere, ez da modu berdinean gertatzen ikasketa familia guztiekin. Zentro ezberdinekin burututako bileretan argi geratu zen: “Formakuntza Dualaren praktiken ordutegiak ez dira sektore guztietara egokitzen, ez delako kontuan izaten sektore batzuek gauean edo asteburuetan mugitzen direla gehienbat eta lanaldi hain konstanteak ez diren horiek ere badaudela, ikuskizunen kasuan bezala”.

Ikasle gehienek hasieratik markatutako ordutegia betetzen dutela adierazi badute ere, beste hainbat kasuetan ordu gehiago sartzen dituzte enpresa edo erakundeko nagusiak eskatuta, ikasleek aipatu zuten bezala: “Enpresa batzuk ikasleek aprobeztatzen dira”.

Aldi berean ikasten eta lanean egoteak astean ordu asko eskatzen ditu goiz eta arratsalde guztiak okupatuta izatea ekartzen duelako. Eta honek planifikazio on bat eskatzen du. Denbora libre gutxiago geratzen zaiela adierazi dute denek, baina aldi berean, hau hobeto aprobeztatzen dutela.


## 2.4 Ikasteko hizkuntza

Euskararen erabilera errazteko eta bultzatzeko edo bideratzeko neurriak ezartzen dira EAE osoan, bai hezkuntzan baita egunerokotasunean ere (Euskara biziberritzeko lkergunea, 2004). Ikasketak euskaraz zentro gehienetan ezarri badira ere, eta euskaraz ikasteko aukera existitzen bada ere, hau ez da horrela gertatzen bere osotasunean, ezta Lanbide Formakuntzan ere ez. Egun, oraindik, aukera asko gaztelaniaz baino ez daude. Gaztelaniazko aukera hauek batez ere gaztelaniaren erabilera euskararena baino handiagoa den hirietan ematen da gehienbat, non euskara gehiago bultzatu behar den.

Gainera, nahiz eta ikasketa zentroan euskaraz ikasi, praktika leku guztietan ez da aukera berdina ematen. Hala, Formakuntza Dualari dagokionez, ez da euskaraz ikasteko aukera hori guztiz bermatzen. Euskaraz ikasten dutenen %33ak adierazi du nahiz eta ikasketak euskaraz burutu praktika lekuan gaztelaniaz egiten duela. %37ak ikasketak gaztelaniaz burutzen ditu, batzuetan aukeratuta eta beste batzuetan aukera gehiago ez edukitzeagatik. Azken hauen %9ak euskaraz burutzen ditu praktikak, eta ikasketak euskaraz egiteko aukera izatekotan horrela burutuko zituen.

Aipatzekoa da bai administrazio publikoetan baita enpresa askotan ere lan egiteko baldintza bat euskaraz jakitea bada ere, hau ez dagoela ehuneko-ehunean bermatuta.

### 9. Grafikoa: Ikasketak eta praktikak hizkuntzaren arabera



## 2.5 Lan arriskuen prebentzioko formakuntza eta babes pertsonalerako ekipamenduak

Osalanen *2018ko Accidentes de Trabajo y Enfermedades profesionales* txostenean adierazitako datuak kontuan hartuz; lan istripuek eta lan gaixotasunek gora egin dute azken aldian. Honek lan osasuna eta istripuen prebentzioa sustatzeko beharra adierazten du, gizarte-eragile guztien parte-hartze aktiboa eskatuz, baita enpresa bakoitzaren parte-hartze indibiduala ere. Ezinbestekoa da enpresek edota erakundeek prebentzioa txertatzea haien egunerokotasunean.


Baina zein da Formakuntza Dualeko ikasleen eta lan arriskuen prebentzioaren arteko harremana? Ikasleak enpresa edo erakundeetan aritzen dira lanean eta, nahiz eta langile 'normalizatu' batek baino ordu kopuru gutxiago egin, enpresa edo erakunde hauen parte dira. Beraz ezinbestekoa da haiek ere lan arriskuen prebentzioaren gaineko formakuntza jasotzea.

Prebentzio hori txertatzeko ezinbestekoa da lan arlo bakoitzean beharrezkoak diren babes pertsonalerako ekipamenduak eskaintzea eta baita hauen erabilera sustatzea ere. Eta ekipamendu hauen eta baita lanpostuaren erabilera egokiak burutzeko formakuntza bat jasotzea.

Formakuntza Dualeko ikasleei babes pertsonalerako ekipamenduen inguruan galdetu zitzaizen inkestan, eta %65aren arabera ekipamendu hauek beharrezkoak direnean eskaintzen dira. Baina ikasleen bestelako %35a beharrezkoak ikusten dituzte nahiz eta eskaintzen ez diren. Azkenengo egoera honi aurre egitea eta hau aldatzea ezinbestekoa da, lan arriskuen prebentzioa bermatze aldera.



### 10. Grafikoa: Eskaintzen diren babes pertsonalerako ekipamenduak



Babes pertsonalerako ekipamenduak eskaintzea ondo badago ere, beharrezkoa da hauen erabilera eta baita lan arriskuen prebentzioen inguruko formakuntza bat eskaintzea lanpostura sartu baino lehen. Honi dagokionez, ikasleen erdiak ez du inolako formazio edo informaziorik jaso. Eta jaso dutenen artean hau hobetzekoa izan dela adierazi dute: “Informazioa inprimatuta eman zidaten, liburuxka bat, nik irakurtzeko.” Beste ikasle batek esan zuen bezala: “Eskorga jasotzailea nola erabiltzen zen erakutsi zidaten 20 minututan nik ere erabili ahal izateko.”



### 3. ETA ZER USTE DUTE FORMAKUNTZA DUALEKO IKASLEEK HONEN INGURUAN?

Hasieran azaldu bezala proiektu eta txosten honen helburua gazteen ikuspegia txertatzea. Ideia honekin jarraituz, EGK Formakuntza Dualean aritzen diren Gipuzkoako zentroetako hainbat ikasleekin elkartu da, eztabaida-talde batzuen bidez haien iritzia batzeko. Honetaz gain, EGK-k beste zenbait ikasleren iritzia galdetegien bidez jaso izan du. Hauen zabalpena EGK-ko webgunean, sareetan eta hezkuntzako eragileen artean egin da.

#### 3.1. Formakuntza Duala aukeratzearen arrazoiak

Formakuntza Dualean aritzen diren ikasleek, eztabaida-taldeetan adierazi denez, formazio-eredu honi buruz hasierako espektatibak edo aurreiritzi batzuk zituztelako aukeratu zuten. Formakuntza honetan sartu aurretik, ikasleek ez dute honen gaineko informazio asko eduki ezta aurreko urteko esperientzien berririk ere.

Hau dela-eta, eztabaida-taldeetan landutako lehenengoa Formakuntza Dualean ikastea aukeratzearen zergatia eta hasierako espektatiba horiek ezagutzea izan da. Hauek nahiko positiboak izan dira bai inkestetan baita eztabaida-taldeetan ere.

Ateratako ideiak, espektatibak edo zergatiak hurrengoak izan ziren, gehiago errepikatu zirenetik, gutxien errepikatu zirenen hurrenkeran azalduta:

- Esperientzia lortzeko.
- Gauza gehiago eta berriak ikasteko
- Dirua edo soldata bat irabazteko eta kotizatzeiko ikasi bitartean.
- Lan munduan sartzeko.
- Ikasitakoa praktikan jartzeko.
- Lan mundua eta lanbide bat benetan zer diren ezagutzeko.
- Lana aukeragatik.
- Errutina eta ohitura batzuk hartzeko.

Formakuntza Dualean sartzearren arrazoi garrantzitsuenetarikoak esperientzia lortzea eta lan mundura sartzea izan dira. Eta baita bi hauen ondorioz lortzen direnak ere; gauza berriak ikastea, dirua irabaztea eta lan mundua zein enplegu bat izatea zer diren ezagutzea hain zuzen ere.

#### 3.2. Espektatibak eta errealitatea bat egiten dute?

Ikasketa hauetan aritzen diren pertsona gazteen espektatibak ezagutu ondoren, hauek errealitatearekin bat egiten duten jakitea ezinbestekoa da. Espektatiba hauen eta errealitatearen arteko ezberdintasun horrek frustrazioa sor dezake gazteengan eta haien laneratze edota ikasketa prozesuan. Etsipen hori Formakuntza Dualari buruz azaltzen denaren eta errealitatearen arteko berdintasun ezak sortzen du. Errealitate hori ezagutzeko ikasle hauen esperientziak izan dira kontutan.

Formakuntza Dualari dagokionez, honetan diharduten ikasle gehienek esperientzia positiboak izan badituzte ere, indargunez edo alde positiboez gain, honen hobetzekoak ere azaleratu dira.

Formakuntza Dualak, ikasketa modalitate normalizatu batekin konparatuz, hainbat alde on edo indargune ditu gaur egungo gizarte eta enpleguaren errealitateari dagokionez, hauetara hainbat aspektutan hobeto egokitzen delako.

Besteak beste:

- Esperientzia lortzen da.
- Dirua irabazten da.
- Ezagutza berriak eta errealak lortzen dira.
- Ikasitakoa praktikan jartzen da.
- Lan munduan sartzeko eta lanean geratzeko aukera da.
- Lan mundua ezagutzen da.
- Jende eta lankide berriak ezagutu.
- Erantzukizuna lortzen da.

Gazteek diru sarrera propioak izatea emantzipaziorako hasierako pausu moduan ikusten dute. Dirua irabaztearen ideia asko errepikatzea espero bazen ere, nabarmentzekoa da gehienbat gizonezkoek aipaturiko ideia izan dela, emakumezkoak beste alderdi batzuei garrantzi gehiago eman dietelarik: esperientzia lortzea, lan merkaturako sarbidea, ezagutza berriak lortzea...

Galdetegi eta eztabaida-taldeetan parte hartu dutenen artean esperientzia da Formakuntza Duala aukeratzeko arrazoi nagusienetako bat. Lan esparru, ikasketa, eta sektore ezberdinetan indargune moduan ikusten dute. Lanbidea edozein izanda ere, esperientzia minimo bat eskatzen da lana bilatzerakoan. Esperientzia hori lortzeko aukera gutxi ematen dira eta, baldintza hau dela-eta, gazteek lan munduan sartzeko dituzten aukerak kaskarragoak bihurtzen dira.

### Lana aurkitzeko erraztasuna ematen du Formakuntza Duala egiteak?

Inkestan Formakuntza Duala ikasleei ea lana aurkitzeko erraztasun gehiago ikusten zuten galdetu zitzaizen. Honen aurrean, %90ak baietza eman zuten, arrazoi nagusiak hurrengoak izan zirelarik:


- Esperientzia lortzen duzulako.
- Enpresak ezagutzen zaituelako eta, beraz, bertan jarraitzeko aukera ematen dizute.
- Lan munduan sartuta zaudelako.
- Ezagutza gehiago dituzulako.

Gazteek Formakuntza Duala burutzearen helburu edo arrazoiaren artean lan munduan sartzeko aukera dago. Gazteek honela adierazi zuten: *“Praktiketan egon bitartean enpresak ezagutzen zaitu eta asko balioesten dute bertan praktiketan egon den ikasle batek gero lan egiten geratzea, funtzionamendua ezagutzen duelako”*. Hainbatetan aipatutako lan esperientzia hori jada lortuta duenez enpresan bertan lanean geratzeko aukerak handitzen dira. Datuek ere egoera hau berresten dute: Formakuntza Duala burutzen duten ikasleen %96ak lan kontratu bat lortzen du honen ostean ([Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako web orrialde ofiziala](#)).

### Eskaintako kontratu mota

Formakuntza Duala egin ostean lanean geratzen direnen artean, galdetegia erantzun dutenen erdiak ez daki zein kontratu mota sinatu duen. Honek gazteen artean lan kontratuen eta lan baldintzen inguruan dagoen formakuntza eza eta informazio falta adierazten du. Kontratu mota ezagutzen dutenen artean %44,5ak kontratu mugagabea duela adierazten du, %22,1ak aldi baterako kontratua eta %33,3ak praktiketako kontratua. Azkeneko hauekin enpresak gizarte segurantzari ordaindu beharrekoa aurreztu egiten du. Beraz, nahiz eta lana aurkitu eta hau prekaritateari aurre egiteko lehenengo pausua kontsideratu, ez dute prekaritate horri aurre egiten lortzen.

11. Grafikoa: Formakuntza Duala egin ostean sinatutako kontratu mota.



### Hobetzekoak

Indargune edo alde positiboez gain, hobetzeko aspektuak ere azaleratu dira. Azken hauen artean gehien errepikatu dena soldata baxuegiak direla izan da. Kasu honetan, dirua irabazten denaren ideiarekin gertatu den bezala, gizonezkoak izan dira hau nabarmendu duten gehienak. Gazteen Euskal Behatokiko, *Gazteak eta enplegua Euskadin 2017 txosteneko* datuak kontuan hartzen badira, 2017. urtean gizonezkoek emakumezkoek baino %11 gehiagoko batez besteko soldatak jaso zituzten.

Beraz, hau, genero bakoitzak garrantzia ematen dion alderdien ezberdintasunarekin erlazionatu daiteke. Emakumezkoek lan merkatuan gizonezkoek baino esfortzu handiagoa egin behar dute soldata altuagoak edukitzeko, baita kristalezko sabaiari aurre egiteko ere. Hau dela-eta, soldatak baxuagoak direnean sortzen zaien frustrazioa gizonezkoen kasuan emakumezkoen kasuan baino handiagoa izaten da, haien lan baldintzak eta lan ordinariora jasotzen dituzten soldatak altuagoak direlako.



Ikasle batek honela azaldu du: *“29 urte ditudanez ezin dut Formakuntza Duala lan kontratuarekin burutu, baina alaba bat dut eta urte hau bukatzerakoan beharrezkoa izango nuen langabeziako prestakuntza ekonomikoa jaso ahal izatea beste lan bat aurkitu bitartean”*. Formakuntza Duala bekarekin burutuz gero ez dago langabeziako prestakuntza ekonomikoa jasotzeko aukerarik. Lan kontratuarekin burutuz gero, aldiz, bai. Beraz, ikasle askok aipatu duten moduan, egoera hau berdina izan beharko litzateke bi modalitateetan.

### Hobetzekoak

- ✓ Soldata baxuegiak
- ✓ Ordutegiak
- ✓ Jarraipena
- ✓ Praktika eremuan egin beharreko funtzioak
- ✓ Malgutasun eta ulermen gutxi
- ✓ Empresa kopurua
- ✓ Bekarekin ez dago langabeziako prestakuntza ekonomikoa jasotzeko aukera

Beste alde batetik, askotan errepikatutako alderdiak ordutegiak izan dira. Formakuntza Dualean aritzen diren ikasleak ikasten eta lanean daude aldi berean, honek denbora asko eskatzen duelarik. Ordutegiei dagokionez hauek hobetzeko beharren zergatiak ezberdinak izan dira, hala nola; eskolako eta enpresako ordutegiak gainjartzen direla eta ondorioz klasean emandako teoria galtzen dutela, batetik bestera presaka ibili behar direla edota oso berandu heltzen direla etxera eta etxerako lanak egiteko denbora gabe geratzen direla.

Jarraipen, malgutasun eta ulermen gutxi dagoela adierazi dute ikasleek baita ere, batez ere eskolako arduradunen partetik, ordutegiak eta egutegiak markatzerakoan, baita gerta ahal diren ezustekoen aurrean ere. Gainera Formakuntza Dualaren gaineko informazio asko, gerta ahala azaldu zaiela adierazi dute, hasiera batean oso informazio gutxi eskaini zitelako.

Eztabaida-taldeetan bereziki errepikatu zen klaseak eta lanaldia gainjartzearen ideia, eta, horren ondorioz, klaseak eta beraz teoria galtzearena. Are gehiago azterketan berdina egitea eskatzen zaiela salatu zuten. Teoria hori ikasteko gehiegizko esfortzua egin behar dute, ikasleen esanetan klasean eta praktika gunean erabilitako teknikak edo metodologiak askotan ez dutelako bat egiten: *“Klasean teoria asko ikasten da, baina praktika gunean errealitatean erabiltzen direnak ikasten dira, erabilgarriak izango direnak”*. Praktika gunean eskola orduetan baino jakintza erreagoak eta erabilgarriagoak lortzen dituztela adierazten dute gazteek, hala ere, kasu batzuetan enpresan burutzen diren praktikek ez dute bat egiten ikasketekin eta, beste batzuetan, lan soberakinak edo eginbehar sinpleenak baino ez dira egiten lanpostuko eginbehar erreala egiteko aukera eman gabe ikasleei.

Gazteek diotenaren arabera, honen arrazoiatariko bat praktika dualak burutzen duten enpresetako arduradunek Formakuntza Dualari buruzko informazio eskasa dutela da. Eta beraz, praktikak ez dira hasierako mementotik modu egokienean egokitzen: *“Arduradunei ez zaie azaldu zer den Formakuntza Dualeko ikasle bat izatea, eta inprobisatzen dute hoberen dakiten moduan askotan”* adierazi dute ikasleek. Jarraipen eta azalpen faltagatik, beste langile normalizatu bat bezala tratatuak izaten dira hasierako mementotik azalpen gehiagorik gabe. Gertatzen den beste kasuetako bat da azalpen falta hauengatik ikasle moduan tratatuak izaten direla, soberakinak edo gauza sinpleenak bakarrik eginez. Hau dela-eta hobeto egokituta egon beharko ziren enpresak eta ikasketak, eta enpresako zein ikastetxeetako arduradunek informazio gehiago jaso beharko lukete Formakuntza Dualaren inguruan.

Enpresak eta ikasketak hobeto egokitu daitezen, praktikak burutu ahal izateko enpresen kopuruaren eskaintza handiagoa behar dela adierazi dute ikasleek, hauetan egiten diren lanak ere ezberdinak izango direlako horrela.

Azkenik, adierazi dute Formakuntza Dualak dedikazio handia eskatzen duela. Horrek antolaketa-lana eskatzen du, prestakuntza duala bizitza pertsonalarekin uztartu ahal izateko eta ikasi eta lan egin ondoren geratzen den denbora libre urria aprobetxatu ahal izateko.



## 4. ONDORIOAK

Euskal Autonomia Erkidegoan Formakuntza Duala ezarri zenetik, ikasle, ikasketa zentro zein enpresa kopuruak gora egin dute urtetik urtera. Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketa Dualaren web orrialdeko datuen arabera 2019an 2.600 ikasle eta 1.400 enpresa baino gehiago parte hartzen dute honetan[1]. Gipuzkoako zentro ezberdinekin burututako elkarrizketetan datu hauek berresten dira, ikasleen eta enpresen asebetetze positibo batekin.

Oso informazio baliagarria eskaini dute bai inkestak bai aurrera eramandako eztabaida-taldeek ere Formakuntza Dualaren garapenaren eta egungo egoeraren diagnostiko bat egiteko, eta aurrera begira erronkak identifikatzeko. Prozesuan jasotako ondorio nagusienak hurrengoak izan dira:

### Laneratzeara

Formakuntza Duala ikasketa normalizatua baino hobeto egokitzen da egungo lan merkatura, honekin, ikasleek gaitasun erreagoak lortzen dituzte, lan mundura sartzeko erraztasuna eskaintzen dien bitartean. Lehen aipatu den bezala, hau burutzeko bi aukera ezberdin daude: beka eta lan kontratua. Honen aurrean, ikasleek aukeren arteko ezberdintasunak direla eta lan kontratuarekin burutzea nahiago dutela adierazi dute.

### Lan mundu dinamikoa

Lan mundua dinamikoa izanik konstanteki aldatzen dago, horregatik beharrezkoa da. Formakuntza Duala, honetan parte-hartzen duten ikasketa zentrotako zein enpresa edota erakundeen arduradunak, honi ere moldatzen joatea.

Ezinbestekoa da ikasleen eta egungo erronkak identifikatzea eta hauei aurre egiteko tresnak sortzea, hala nola:

- Ordutegiak. Lan eta ikasteko orduak haien artean ez gainjartzea.
- Jarraipen integrala. Eskakizunak eta baldintzak ikasleen banakako egoera kontuan hartuz kudeatzea, hauen egoera indibidualari ahalik eta hoberen egokituz eta jarraipen egokiena eginez.
- Jarraipen eta ebaluazio tresnak eta epeak ezarri. Jarraipena ezartzeko eta hau betetzen dela bermatze aldera.
- Ikasle-zentro-enpresa arteko koordinazioa. Garrantzitsua da Formakuntza Duala osatzen duten hiru atalen arteko koordinazioa ona izatea, desadostasunak eta gaizki-ulertuak ekiditeko.
- Aukera gehiago sortu. Praktika aukera gehiago eskaini hauek ikasleen egoera indibidualei hobeto egokitzeko.

### Euskara

Nahitaezko ikasketetan euskaraz ikasteko aukera bermatuta badago ere, ez da berdina gertatzen unibertsitate eta lanbide heziketaren arloetan, ezta Formakuntza Dualean ere. Formakuntza Dualeko ikasketak txandaka egiten dira ikasketa zentroan eta praktika gunean. Kasu hauetan, nahiz eta zentroan ikasketak euskaraz burutu ez da bermatzen praktika gunean hauek ere euskaraz izango direnik. Beraz, honen aurrean, praktika gune gehiago eskaintzea proposatzen da, baita bekak jasotzeko enpresen eskakizunen artean euskara maila bat bermatu behar izatea ere, egoera hau hobetzeko neurri moduan.

### Genero perspektiba txertatzearen beharra

Amaitzeko, 2018an egindako topaketetan bezala, aurten oinarritzkoa den genero-perspektiba ere nabarmendu nahi da. Azaldu den bezala, Formakuntza Duala industriako eta sektore maskulinizatuetan ematen da batik bat. Ondorioz emakumezkoak eta bestelako kolektiboak, diskriminatuak geratzen dira.

Beraz, genero perspektiba bermatzeko egokitzapenak egiten jarraitzea beharrezkoa da. Formakuntza Duala ziklo ezberdinetara zabalduz emakumezkoak eta kolektibo diskriminatuak honetara hurbiltzeko eta emakumezkoak pairatzen duten lan-segregazio horizontalari aurre egiteko ikasketa jarduerak honetan.



Bidasoa LHII. Eztabaida-taldea



## 5. ITXIERA

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Formakuntza Dualeko errealitatera hurbiltzeko urratsarekin jarraitu du enplegu lan-arlotik, esparru honetan gazteen eskubide, interes eta beharren alde lan egiten jarraitzeko. Ikasketa jarduera honetan diharduten gazteen ikuspuntua kontuan hartu eta honetan ematen diren arazo eta hobetzeko proposamenak jaso nahi izan dira, ondoren hauek administrazio publikoari helarazteko asmoz.

Formakuntza Duala ikasketa jarduera indartsua da, lanbide heziketan emateaz gain unibertsitateko hainbat arloetan ere zabaltzen dagoena, beraz garrantzitsua da oso gazteen ahotsa mahai gainean jartzea, haiek zer esatea dutelako gai honen inguruan, honen barrualdea bizitzen dutenek izanik.

EGK-k Formakuntza Dualaren ereduari dagokionez ikasleen hitza kontuan hartuz jarraituko du lanean eta hau oinarri izanda bere diskurtsoa eraikitzen eta botere publikoei gazteen eskaera eta nahiak helarazten.



## 6. BIBLIOGRAFIA

83/2015 DEKRETUA, ekainaren 2koa, Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Sarbidea: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2015/06/1502515e.pdf>

Emakunde (2016). La incidencia del valor de la igualdad en la elección de estudios de grado superior por alumnado de 2º de bachillerato en Euskadi. Gasteiz:: Emakunde. Sarbidea: [http://www.adimen.es/\\_files/archivos/53977381-5005-428a-917c-a6f0103a6c57.pdf](http://www.adimen.es/_files/archivos/53977381-5005-428a-917c-a6f0103a6c57.pdf)

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) (2018). Formakuntza Duala Ezagutzen. Formakuntza Dualaren praktikak gazteriarengan duen eragina ezagutzeko burututako bi jardunaldien ondorio-txostena. Sarbidea: <https://egk.eus/wp-content/uploads/2019/02/FormakuntzaDualaEzagutzen.pdf>

Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako web orrialde ofiziala, azken sarbidea 2019-12-09. Sarbidea: <https://www.fpeuskadiduala.eus/ikasleak/informazio-orokorra/>

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea. Sarbidea: <https://eu.eustat.eus/indice.html>

Eustat (2019). Euskal Autonomia Erkidegoan 16 urteko eta gehiagokoen langabezia-tasa hiruhilekoaren arabera sexuari eta adinari jarraiki. Sarbidea: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0011500/Euskal\\_AEn\\_16\\_urteko\\_eta\\_gehiagokoen\\_langabezia-tasa\\_hiruhilekoaren\\_arabera\\_sexuari\\_eta\\_adinari\\_jarraiki\\_1/tbl0011526\\_e.html](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0011500/Euskal_AEn_16_urteko_eta_gehiagokoen_langabezia-tasa_hiruhilekoaren_arabera_sexuari_eta_adinari_jarraiki_1/tbl0011526_e.html)

Gazteen Euskal Behatokia (2018). Gazteak eta enplegua Euskadin 2017. Eusko Jaurlaritza. Sarbidea: [http://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/enplegua\\_liburua\\_17/eu\\_def/adjuntos/Juventud%20y%20empleo%202017\\_eus.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/enplegua_liburua_17/eu_def/adjuntos/Juventud%20y%20empleo%202017_eus.pdf)

Osalan. Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales CAE 2018. Eusko Jaurlaritza. Sarbidea: [http://www.osalan.euskadi.eus/contenidos/noticia/osalan\\_not\\_siniestralidad\\_2018/es\\_def/adjuntos/Osalan%20Informe%20CAE%202018\\_web.pdf](http://www.osalan.euskadi.eus/contenidos/noticia/osalan_not_siniestralidad_2018/es_def/adjuntos/Osalan%20Informe%20CAE%202018_web.pdf)

Soziolinguistika klusterra. Euskara biziberritzeko Ikergunea. (2004) Euskararen erabileran nondik eragin? Zenbait gogoeta. Euskara biziberritzeko Ikergunea, azken sarbidea 2019-12-06. Sarbidea: <http://www.soziolinguistika.eus/node/1778>